

III.2-T(Z)EKOA

- **-T(Z)EKOA + IZAN** esaldiak gaztelaniazko *ser de + infinitivo*, *ser digno de + infinitivo* edo *adjetiboa* adierazten ditu:

Kontutan hartzekoa da	- Es digno de tener en cuenta, considerable
Ez da sinestekoa	- No es de creer, es increíble
Ikustekoa da, gero!	- Es digno de ser visto
Harritzekoa da	- Es de extrañar, extraño, raro
Eskertzekoa da	- Es de agradecer

Baina **asmoa** ere adierazten du maiz:

Bostetan etortzekoak ziren	- Eran de venir, pensaban venir, a las cinco
Bihar hastekoak gara	- Somos de empezar, pensamos empezar, mañana

ARIKETAK

1. *Bete itzazu hutsuneak, parentesi barruko aditza erabiliz:*

1. Orain arte inork ez du egin, baina ... dira denda horretan dituzten prezioak (salatu)
2. Gogoan ... dira hemen ikusi ditugun gauzak (hartu)
3. ... zen zirko hura; munduko artistarik onenek parte hartzen zuten bertan (ikusi)
4. Nik badakit barkatzen, baina zuk egin didazuna ez da ... (barkatu)
5. Eskaparateko koadroak apaingarri huts dira; ez dira ... (saldu)
6. ... da nolako lan polita egin duen zure alabak (ikusi)
7. Jai egunak aprobetxatu egin behar dira; ez dira alferrik ... (galdu)
8. Hasi eta utzi gabe ... da liburu hori (irakurri)
9. Berehala ... da haragi hori, hondatu egingo da bestela (jan)
10. Gordinik ... al dira fruta hauek? (jan)
11. Horren azkar bazabiltza, ez da ... egunen batean istripu bat izatea (harritu)
12. ... da gugatik egin duzun guztia (eskertu)
13. Zinera ... ginen gaur, baina berandu etorri naiz lanetik eta beste baterako utzi dugu (joan)
14. Auto berria ... nintzen, baina azkenean erabilia erosi dut (erosi)
15. Gaur goiz ... zen Roberto, baina ordulariak ez du jo eta hamarrak arte ez da esnatu (jaiki)
16. Aurten Londresa ... ziren, baina laguna gaixotu zaie eta etxean geratu dira (joan)
17. Honez gero lan berrian ariko da; aste honetan ... zen behintzat (hasi)

III. 3-T(Z)EKOTAN

- Forma honek **baldintza** eta **asmoa** adierazten ditu.

Baldintza:

Autoa utziko dizut, baina ondo zaintzekotan
Te dejaré el coche, pero a condición de que lo cuides bien

Ez jatekotan ez ezazu eskatu
Si no lo vas a comer, no lo pidas

Asmoa:

Auto berria erostekotan zebilen
Pensaba comprar coche nuevo

Zinera joatekotan ziren
Pensaban ir al cine

ARIKETAK

1. Bete itzazu hutsuneak, parentesi barruko aditza erabiliz (baldintza):

1. ... emango dizut sarrera; beste norbaiti emango diot bestela (joan)
2. Gaur bertan ... , arraina erosiko dut (jan)
3. Garaiz ... , irtengo naiz zurekin (itzuli)
4. Etxean ... , ez duzu autorik behar (geratu)
5. Ez ... , ez du merezi atletismoan hastea (segitu)
6. Ez ... , ez dut botila irekiko (edan)
7. Ez ... , ez dut postala idatziko (bidali)
8. Tori hamar mila pezeta, baina bihar bertan ... (itzuli)
9. Hotelean ... , ez du merezi Londresaino joatea (geratu)
10. Ez ... , ez du merezi horren beroki garestia erostea (jantzi)

2. Ipini hutsunetan dagokion aditza (asmoa):

1. Zuregana ... nintzen oraintxe.
2. Autoa ... zegoen beti eta azkenean erosi du.
3. Partidura ... ginen, baina sarrerarik gabe geratu gara.
4. Etxea ... ibili dira, baina azkenean ez dute saldu.
5. Amonari bisita ... ginen, baina ez joateko deitu digute.

1 Irakurgaia .

LAGUNARI ESKUTITZA

*Pili Loinazburu López
Oiartzun*

Kaixo laguna! Zer moduz zaude? Aspaldi nenbilen idaztekotan, baina, badakizu, egunak konturatu gabe joaten dira eta gaur arte ez naiz jarri paperaren aurrean. Zer moduz iritsi zinen etxera? Ez dakizu nolako penaz geratu ginen hemen denak zu joan zinenean. Ez ditugu berehala ahaztuko gurekin pasatu zenituen egunak. Kurtsoa aurrera doa, baina asko falta da oraindik hurrengo oportetarako. Esan genuen bezala, datorren udan zu ez bazara Londresa etortzen gugana, gu joango gara horra, zurekin egun batzuk igarotzera.

Amona ospitalean dugu, baina ez du gauza handirik, itxuraz. Bihar edo etzi etxera bidaltzekoak omen dira. Gainerakoak beti bezala gaude. Ane txikia askotan oroitzen da zutaz. Galdera bera egiten du beti: '*Fili noiz etoliko ... ?*'. Aurten haurtzaindegian hasi da eta han ingelesez ikasiko du. Etxean, badakizu, gurekin euskaraz eta amonarekin gaztelaniaz. Nahaste ederra dauka gaixoak!

Udan ezagutu genituen mutilek ere maiz galdetzen dute zugatik. Batez ere, Michael ile horiak. Oroitzen zara, ezta? Beharbada egunen batean han agertuko zaitzu bisitan. Datorren udan Espainiara joatekoa omen da, Mediterraneo aldera edo. Baina beharbada lehenbizi hortik pasatuko dela esan dit, Euskal Herria ezagutzeko gogo handia duela. Ez dakit zuri bisitatxo bat egiteko aitzakia bila ez ote dabilen. Izan ere, ikustekoa da nolako aurpegia jartzen duen zutaz hitz egiten duenean. Ez da harriztekoa, hain atsegina izan zinen berarekin...

Michaelen laguna, John, gaztelania ikasten hasi da nirekin. Ez du asko aurreratzen, baina nik nahiago dut horrela joatea, poliki-poliki. Pena izango litzateke klaseak berehala amaitzea..., ulertzen didazu, ezta?

Aitak eta amak ere goraintziak eman dizkirate zuretzat. Nahi baduzu, ongi etorria izango zarela berriro gure etxean datorren udan ere. Aita enpresa berri batean hasi da; esportazio-inportazio lanekin zerikusia duela uste dut. Oso nekatua dabil, lan handia egiten baitu. Asko oroitzen da bere herriaz. Durango bezalakorik ez dagoela dio. Hala ere, udan horra joaten bagara, bera ezingo da gurekin etorri, hasi berria baita enpresa horretan.

Ama, beti bezala etxean. Badakizu, Ane haurtzaindegira eraman, ekarri... Hau eskolan hasten denean, berriro klaseak ematen hasiko dela dio. Ikusiko dugu.

Bueno, Pili, amaitu egin behar dut. Ea noiz idazten didazun zure berriak kontatuz. Goraintziak zure etxeko guztiei eta zuk hartu ezazu besarkada handi-handia.

Begoña Liroz

↪ a. Aurkitu testuan hitz edo esaldi hauen antzekoak:

alde egin	dirudienez	azaldu	eskumuinak
gogoratu	harrigarria	aurrena	beste denak

↪ b. Aukera ezazu esaldirik egokiena:

- | | | | |
|---------------|---|--|--|
| 1. Pili ... | <ul style="list-style-type: none"> Londresen bizi da (a) Oiartzunen bizi da (b) Durangon bizi da (c) Madriren bizi da (d) | 2. Begoña ... | <ul style="list-style-type: none"> alaba zaharrena da (a) ama da (b) alaba gazteena da (c) izeba da (d) |
| 3. Begoña ... | <ul style="list-style-type: none"> ikaslea da (a) etxeko andrea (b) haur txikia (c) langilea (d) | 4. Aitak Durangora joateko ... | <ul style="list-style-type: none"> ez du gogorik (a) ez du dirurik (b) ez du oporrik (c) gaixorik dago (d) |
| | 5. Datorren urtean elkar ikusiko dute... | <ul style="list-style-type: none"> inon ez (a) Londresen (b) Euskal Herrian (c) bietako batean (d) | |

↪ c. Erantzun:

1. Egun asko egin behar al ditu amonak ospitalean?
2. Zer galdetzen du beti Ane txikiak?
3. Haurtzaindegian ingelesa ikasten badu, zenbat hizkuntza jakingo ditu Anek?
4. Zertara joan nahi du Michaellek Euskal Herrira, berak dioenez?
5. Hori bera uste al du Begoñak? Zertan igertzen dio?
6. Zer da harritzekoa ez dena?
7. Badirudi Begoñari mutil bat gustatzen zaiola. Zein? Zertan igertzen da?
8. Nongoa da Begoñaren aita?
9. Segurua al da datorren udan Begoña-eta Durangora joango direla?
10. Zenbat lagun bizi dira Begoñaren etxean?

↪ d. Idatzi eskutitz bat lagun bati, gidoi hau jarraituz:

- zure etxeko berriren bat eman
- hurrengo udarako gonbidatu zure etxera
- udarako planak eta asmoak
- agurra



III. 4. -T(Z)EAGATIK, -T(Z)EARREN

- **-gatik** edo **-arren** motibatiboak ere hartzen ditu batzuetan aditz-izenak:

Mendian ibiltzeagatik joan da Suizara
Seguruago ibiltzearren, gidaria eskatu du

- Gaztelaniazko *por + infinitivo* esaldiak bezala, euskal motibatiboak ere kausa nahiz helburua adierazten du.

~ **kausa:**

Korrika ibiltzeagatik erori da
Berandu iristeagatik ezer gabe geratu da
Gehiegi jateagatik jarri zaio tripako mina

Gaizki portatzearren zigortu dute

~ **helburua:**

Merkeago erosteagatik joan da Frantziara
Zu ikusteagatik etorri naiz
Gehiago irabazteagatik ez da osasuna galdu behar

Lehenago iristearren hegazkina hartu dute



- **KONTUZ:** Ez dira gauza bera **egiteagatik** eta **eginagatik** edo **egitearren** eta **eginarren**. Partizipioaren gainean egiten diren formek babilio kontzesiboa dute (a pesar de + infinitivo).

Ikus diferentzia:

- Azkarregi ibiltzeagatik erori da
Se ha caído por andar demasiado rápido
Azkarregi ibiliagatik ez da erori
A pesar de andar demasiado rápido no se ha caído
- Gehiago irabaztearren joan da Alemaniara
Ha ido a Alemania por ganar más
Gehiago irabazi arren ez da hobeto bizi
A pesar de ganar más no vive mejor

ARIKETAK

1. Bete itzazu hutsuneak parentesi barruko aditza kasu motibatiboan erabiliz:

1. Ez pentsa zu ... hamabi kilometro egingo ditudanik (ikusi)
2. Harroa zen, edozer gauza egingo zuen besteak baino aurrerago ... (geratu)
3. Albora ... gertatu zitzaion istripua (begiratu)
4. Niri gustatzen zaidan raketa ... , Baionaraino joan dira (erosi)
5. Entranatzaileak esandakoa ez ... galdu dute partidua (egin)
6. Lasaiago ... joan dira mendira oporrak pasatzera (egon)
7. Bakarrik ez ... , gidari bat hartzea erabaki zuen Martxelok (ibili)
8. Egia ... ez zaitu inork zigortuko, gizona! (esan)
9. Beti aurrena ... saiatzen da horrenbeste Koldo eskolan (izan)
10. Nik badakit zergatik duzun buruko mina: lan gogorregia ... (egin)
11. Arropa arinegiak ... hoztu da (eraman)
12. Bihotz oneko neska zen Miren Koro. Gaixoak ez zekien zer egin jendeari poz ... (eman)
13. Epailen kontra gaizki esaka ... zigortu dute 'Aurrera' egun-
kariko zuzendaria (aritu)
14. Soldadutzara ez ... egin zuen eroarena (joan)
15. Gizon zahar harekin topo ez ... pasatu da beste aldera (egin)

2. Euskaratu:

1. Se ha quedado en casa por no venir con nosotros.
2. Eso te ha pasado por hablar demasiado.
3. Por decir la verdad no te va a pasar nada.
4. Harán cualquier cosa por ver a su hijo contento.
5. No le hagas caso, lo ha dicho por decir algo.
6. No te preocupes, por dar un poco de sangre no te va a pasar nada.
7. No sale por beber, sino por estar con los amigos.
8. Le han quitado el carnet por pasar tres veces el semáforo en rojo.
9. Suele hacer un camino más largo, por no pasar delante de tu casa.
10. Cobran 300 pesetas por limpiar los pantalones y otro tanto por plancharlos.
11. Gracias por la visita (=por venir).
12. Le han pagado 20.000 pesetas por pintar el salón.
13. Eso te pasa por decir todo lo que piensas.
14. Han venido desde París por ver el 'Guernica'.
15. Te han clasificado (*jarrri*) el último por salir antes de tiempo.



Testuak lantzen

1 Bete itzazu hutsuneak **-t(z)eagatik** forma erabiliz eta kontestua kontutan hartuta:

Ur azpiko bizitza aztertzen dutenen artean, Jacques Cousteau izango da, du-darik gabe, ezagunena. Arrainen bizitza hobeto ... , metalezko kapsula bat egin eta Mediterraneora joan zen behin. Kapsula hartan sartu eta hondoraino jaitsi zuten. Gora eta behera ez ... , sukaldea eta gela bat ipini zituen kapsula barruan. Hiru aste egin zituen ur azpian, mugitu gabe, arrainen mugimenduak aztertzen. Fama handia hartu zuen Cousteau-k hori

2 Irakurgaia

NIK EZ DUT ZAKURRIK

Hiriko zaratarekin aspertuta, herri txiki batean hartu zuen Alfredok etxea, ero-soago bizitzeagatik eta batez ere gauean lasaiago lo egiteagatik.

Lehenbiziko gauean, ordea, ez zuen bake handirik izan. Gauerdi aldean edo, lo zegoela, telefonoak esnatu zuen bat-batean.

—Bai...

—Zu al zara auzo berria? —emakume baten ahotsa zen.

—Bai, ni nauzu...

—Adizu, gizona —haserre emakumeak—, zure zakur horrek ez al digu lo egiten utzi behar?

—Baina...

—Ez, ez; ez hasi orain *baina* eta *baina*. Ondoko etxeko andrea naiz eta zure zakur horrek ez digu lo egiten uzten. Ez dago eskubiderik! Isilarazi ezazu lehenbailehen, poliziarri deituko diot bestela. Jakinaren gainean zaude. Ines Mutuberria naiz ni eta jakin ezazu Ines Mutuberria ez dela txantxetan ibiltzen.

—Eskerrak abisatzeagatik, baina ni...

—Zenbat aldiz esan behar dizut *bainaka* ez hasteko nirekin? Isilarazi zakurra eta kito.

Eta besterik gabe eten egin zuen deia. Urrutian zakur baten zaunkak entzuten ziren...

Biharamunean ez zen ezer gertatu. Gauerdian, ordea, telefonoak jo zuen Ines Mutuberriaren etxean. Haserre jaiki zen hau ohetik, lo hartu berria baitzen.

—Ines Mutuberria?

—Bai, ni naiz...

—Zure auzo berria naiz.

—Zer...? -erdi lo andreak.

—Auzo berria naizela! Eta badakizu zertarako deitu dizudan? Nik zakurrik ez dudala esateko. Agur eta ondo lo egin!

auzo: vecino (otras veces, barrio)